Kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren irizpideak:	**Criterios de solvencia económica y financiera:**
a) Lizitatzailearen urteko negozio bolumenaren adierazpena, amaitu diren azken hiru ekitaldietatik onena izan den ekitaldiari dagokiona.	**a) Declaración sobre el volumen anual de negocios de la empresa licitadora referido al año de mayor volumen de negocio de los tres últimos concluidos.**
- Irizpidea: azken hiru ekitaldietatik urteko bolumen handiena izan duen horretan, negozio-zifraren urteko batez besteko balioaren zenbateko garbiaren % 70, gutxienez, egin izana egiaztatu beharko du. Hau da:	**- Criterio:** Volumen anual de negocios en el ámbito al que se refiere el contrato que, referido al mejor ejercicio dentro de los 3 últimos disponibles, en función de las fechas de constitución o de inicio de actividades del licitador y de presentación de las ofertas, deberá ser, como mínimo, del 70 % del importe neto del valor anual medio de la cifra de negocios. Es decir:
1. SORTA	**LOTE 1**
74.436,35 €	74.436,35 €
2. SORTA	**LOTE 2**
80.174,96€	80.174,96€
3. SORTA	**LOTE 3**
73.877,17 €	73.877,17 €
4. SORTA	**LOTE 4**
79.320,36 €	79.320,36 €
5. SORTA	**LOTE 5**
109.127,12€	109.127,12€

2000542G
2010-01

Donostia Kirola
Anoeta pasealekua, 18 | Tel. 943481850 | udala_kirolak@donostia.eus | www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

- **Honen bidez egiaztauko dira:** Merkataritzako Erregistroan onartutako eta utzitako urteko kontuen bidez, baldin eta enpresa bertan erregistratuta badago, bestela, izena emanda egon behar duen erregistro ofizialean utzitako kontuen bidez. Merkataritzako erregistroan izena emanda ez duten banakako enpresariek Merkataritza Erregistroak legalizatutako beren inbentario liburuen eta urteko kontuen bidez, edo baliokidearen bidez, egiaztatuko dute (adibidez, onura publikoko elkarte aitortua bada, urteko kontuak aurkeztu beharko ditu dagokion Elkarteen Erregistro Orokorrean).	**- Se acreditarán mediante:** Cuentas anuales aprobadas y depositadas en el Registro Mercantil, si la empresa estuviera inscrita en dicho registro, y en caso contrario por las depositadas en el registro oficial en que deba estar inscrita. Las empresas individuales no inscritas en el Registro Mercantil acreditarán mediante sus libros de inventarios y cuentas anuales legalizados por el Registro Mercantil, o equivalente; (por ejemplo, en su caso, si se tratara de una asociación reconocida de utilidad pública, tendrá que presentar las cuentas anuales presentadas en el Registro General de Asociaciones que corresponda).
Kaudimen tekniko edo profesionalaren irizpideak:	**Criterios de solvencia técnica o profesional:**
a).- Kontratuaren xedeari dagokion mota edo izaera bereko azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda -hau da, kirol-instalazioen kudeaketa eta ustiapena-, ondo burutu direla egiaztatzen duten ziurtagiriekin.	a).- Relación de los principales servicios o trabajos realizados en los últimos tres años del mismo tipo o naturaleza al que corresponde el objeto del contrato -es decir, la gestión y explotación de instalaciones deportivas- avalados por certificados de buena ejecución.
Irizpidea: amaitutako azken 3 urteetako onenean, negozio-zifraren urteko batez besteko balioaren zenbateko garbiaren % 70 egin beharko du, gutxienez, kontratuaren xedearen mota edo izaera bereko lanetan (Kirol instalazioak kudeatzeko zerbitzuak.). Hau da:	**Criterio:** en el mejor año entre los 3 últimos concluidos, deberá haber realizado, como mínimo, el 70 % del importe neto del valor anual medio de la cifra de negocios, en trabajos del mismo tipo o naturaleza que el objeto del contrato (Servicios de gestión de instalaciones deportivas). Es decir:
1. SORTA	**LOTE 1**
74.436,35 €	74.436,35 €
2. SORTA	**LOTE 2**
80.174,96€	80.174,96€
3. SORTA	**LOTE 3**
73.877,17 €	73.877,17 €
4. SORTA	**LOTE 4**
79.320,36 €	79.320,36 €
5. SORTA	**LOTE 5**
109.127,12€	109.127,12€
- Honen bidez egiaztatuko dira: Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako	- **Se acreditarán mediante:** Certificados expedidos o visados por el órgano competente, cuando el destinatario sea una entidad del sector

2000542G
2010-01

ziurtagirien bidez egiaztatuko da; hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako ziurtagirien bidez, edo, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez, enpresaburuaren esku dauden agiriekin batera, prestazioa egin dela eta behar bezala edo egoki gauzatu dela egiaztatzen badute.	público, cuando el destinatario sea un sujeto privado, mediante un certificado expedido por este o, a falta de este certificado, mediante una declaración del empresario acompañado de los documentos obrantes en poder del mismo que acrediten la realización de la prestación y su correcta u optima ejecución.
Kaudimena akreditatzeko, lizitatzaileak oinarritu ahal izango dira beste erakunde batzuen kaudimenean, haiekin dituzten loturen izaera juridikoa gorabehera, baldin eta frogatzen badute kaudimen horretaz baliatu ahal izango direla kontratuaren indarraldi osoan eta beste erakunde horiek ez badute kontratatzeko debekurik.	Para acreditar la solvencia exigida, las licitadoras podrán basarse en la solvencia de otras entidades, independientemente de la naturaleza jurídica de los vínculos que tenga con ellas, siempre que demuestre que durante toda la vigencia del contrato dispondrá efectivamente de esa solvencia, y la entidad a la que recurra no esté incursa en una prohibición de contratar.
Beste erakunde batzuen kaudimenean oinarritu nahi duten lizitatzaileek horixe adierazi beharko dute parte hartzeko eskaeran sartu beharreko erantzukizunpeko adierazpenean (zehazki, Kontratazio Agiri Europar Bakarraren II. Zatiaren C atalean).	Las licitadoras que pretendan basarse en la solvencia de otras entidades deberán indicarlo así en la declaración responsable a incluir en la solicitud de participación (en concreto, en la sección C de la parte II del DEUC).
Horrez gain, eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean oinarritu nahi badu, beharrezko baliabideak izango dituela frogatu beharko du. Horretarako, KUPek horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik 10 egun balioduneko epean, erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztu beharko du (**X. ERANSKIN**ean jasotako ereduaren arabera egina).	Adicionalmente, en el caso de que el licitador que presente la mejor oferta pretenda basarse en la solvencia de otras entidades, deberá demostrar que va a disponer de los recursos necesarios mediante la presentación a tal efecto, en el plazo de 10 días hábiles a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento efectuado a tal efecto por el PMD, el compromiso por escrito de dichas entidades (elaborado conforme al modelo contenido en el **ANEXO X**.).
Konpromiso hori notario baten aurrean gauzatu beharko dute eskaintza hoberena egin duen lizitatzaileak erabiliko dituen erakundeek, eskatutako kaudimena akreditzeko modu gisa. Idatzi horretan, adieraziko dute ezagutzen dituztela lizitatzaileak parte hartuko duen lizitazioaren baldintza guztiak; badutela gutxieneko kaudimena (hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuta, 19. klausulak ezarritakoaren arabera); eta erabateko borondatea dutela, baldin eta kontratua lizitatzaileari adjudikatzen bazaio, kontratua gauzatzeko behar diren bitartekoak haren esku jartzeko (espreski onartuta Kode Zibilaren 1257.2 artikulua, KUPek baimendu behar	Este compromiso deberá/n otorgar ante Notario la/s entidad/es a la/s que recurra el licitador que presente la mejor oferta para acreditar la solvencia exigida, manifestando: que conoce/n en todo su alcance las condiciones de la licitación a la que concurre el licitador; que ostenta/n la referida solvencia, aportando documento acreditativo de ello (en la forma prevista en la Cláusula 19); y manifieste/n su voluntad irrevocable de poner a disposición de dicho licitador, caso de que resulte adjudicatario, los medios necesarios para la ejecución del contrato (con aceptación expresa de lo dispuesto en el artículo 1257.2 del Código Civil, debiendo autorizarse expresamente por el PMD su

duelarik espreski haren ordezkapena edo aldaketa). Idatzia aurkeztuta, KUPek konpromiso hori onartuko du, dena delako lizitatzailea adjudikazioduna suertatuz gero.	sustitución o modificación). La presentación de dicho escrito tendrá los efectos de aceptación de dicho compromiso por el PMD, para el supuesto de que el licitador en cuestión resulte adjudicatario.
Klausulak gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ezaren inguruan aipatutakoa bete egin beharko da eskaerak aurkezteko epea amaitzean, kontratua burutzeko unean.	Las circunstancias relativas a la capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar a las que se refiere esta Cláusula, deberán concurrir en la fecha final de presentación de solicitudes de participación y subsistir en el momento de la perfección del contrato.
13.3 Parte hartzeko eskaeren edukia	**13.3 Contenido de las solicitudes de participación**
(I. ERANSKINA) Parte hartzeko eskaerek bat etorri beharko dute baldintza-agiri honekin, baldintza teknikoen agiriarekin eta kontratuko gainerako dokumentazioarekin, eta horiek aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela klausula guztien edukiak, salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta borondatez onartzen duela gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, esleipen- eta betearazpen-prozesuetatik eratorritako datu guztiei.	Las solicitudes de participación (**ANEXO I**) deberán ajustarse al presente Pliego, al Pliego de Prescripciones Técnicas y a la restante documentación contractual, y su presentación supone la aceptación incondicionada por el licitador del contenido de la totalidad de sus cláusulas, sin salvedad o reserva alguna, así como la aceptación voluntaria de dar transparencia institucional a todos los datos derivados de los procesos de licitación, adjudicación y ejecución.
Lizitatzaileek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:	Los licitadores deberán presentar la siguiente documentación:
1. Erantzukizunpeko adierazpena, **lizitazio honi erantsitako fitxategi gisa (Euskadiko Kontratazio Plataforman)** gehitzen zaion Europako kontratazio-dokumentu bakarraren (aurrerantzean, **EKAB**) formularioari egokituko zaiona, eta ondoren adierazitakoaren arabera beteko dena:	1. Declaración responsable que se ajustará al formulario del documento europeo único de contratación (en adelante, **DEUC**) que se incorpora **a la presente licitación como fichero adjunto (en la Plataforma de Contratación de Euskadi)** y se cumplimentará conforme a lo indicado a continuación:
-Arestian adierazitako 2016/17 Araubideko (EB) **II. ERANSKIN**ean jasota dauden Jarraibideen arabera beteko da EKAB.	-El DEUC deberá cumplimentarse conforme a las Instrucciones recogidas en el **ANEXO II** (Reglamento (UE) 2016/7).
-EKABeko IV. zatian, "Hautaketa irizpideak", lizitatzaileek A atala bakarrik bete beharko dute: "Hautaketa irizpide guztiei buruzko adierazpen orokorra".	-En relación concreta con la "Parte IV: Criterios de selección" del DEUC, los licitadores deberán cumplimentar, únicamente, la sección A: "Indicación global relativa a todos los criterios de selección".
-Agiri honen 13. klausularen arabera lizitatzaileak beste erakunde batzuen	**-En los casos en que el licitador recurra a la solvencia y/o medios de otras entidades de**

2000542G
2010-01

kaudimen edo bitartekoetara jotzen badu, erakunde horiek ere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, eta EKABeko II. zatiko A ("Operadore ekonomikoari buruzko informazioa") eta B ("Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa") ataletan eta III. Zatian eskatzen den informazioa jaso beharko dute bertan.	**conformidad con la Cláusula 13 del presente Pliego, cada una de ellas también deberá presentar una declaración responsable en la que figure la información pertinente requerida en las secciones A ("Información sobre el operador económico") y B ("Información sobre los representantes del operador económico") de la parte II, y en la parte III del DEUC.**
-Zenbait enpresaburu **aldi baterako elkartuta** aurkezten badira, **enpresa bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du,** eta EKABeko II.-V. Zatietan eskatutako informazioa jaso beharko du bertan.	-En todos los supuestos en que varios empresarios concurran agrupados en una **unión temporal, se aportará una declaración responsable por cada empresa participante** en la que figurará la información requerida en las partes II a V del DEUC.
2. Aldi baterako elkartuta aurkezten diren enpresaburuek kideen izenak, inguruabarrak eta bakoitzaren parte hartzea adierazi beharko dituzte, eta, gainera, esleipendun izendatzen badituzte, aldi baterako enpresa elkartea formalki eratzeko konpromisoa hartu beharko dute **(III. ERANSKINA)**. Aldi baterako elkarte batean aurkeztu nahi duten enpresaburuak solidarioki behartuta geldituko dira, eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatuko dute, ahalorde askietsia izango duena kontratua iraungi artean kontratutik eratorritako eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzeko, ahalorde mankomunatuak eman ahal izango badira ere kopuru esanguratsuak kobratu eta ordaintzeko.	2. Los empresarios que deseen concurrir integrados en una unión temporal deberán indicar los nombres y circunstancias de los que la constituyan y la participación de cada uno, así como que asumen el compromiso de constituirse formalmente en unión temporal en caso de resultar adjudicatarios **(ANEXO III)**. Los empresarios que deseen concurrir integrados en una unión temporal quedarán obligados solidariamente y deberán nombrar un representante o apoderado único de la unión con poderes bastantes para ejercitar los derechos y cumplir las obligaciones que del contrato se deriven hasta la extinción del mismo, sin perjuicio de la existencia de poderes mancomunados que puedan otorgar para cobros y pagos de cuantía significativa.
3. Atzerriko enpresek berariazko aitorpena aurkeztu beharko dute. Bertan, kontratuaren ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla eta, hala badagokio, atzerriko jurisdikzio foruari uko egingo diotela adieraziko dute.	3. Las empresas extranjeras deberán presentar declaración expresa de someterse a la jurisdicción de los juzgados y tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitador.
4. Desgaitasun kuotak eta berdintasun plana beteko direla adierazteko erantzukizunpeko adierazpena, **IV. ERANSKINAren** ereduarekin bat etorriko dena. 50 langile edo gehiago dauzkaten enpresek konpromisoa hartu beharko dute, langileen % 2	4. Declaración responsable para el cumplimiento de las cuotas de discapacidad y el plan de igualdad conforme al modelo del **ANEXO IV**. Las empresas de 50 o más trabajadores y trabajadoras deberán comprometerse a cumplir el requisito de que el 2% de sus empleadas y

2000542G
2010-01

desgaitasunen bat duten pertsonak izateko. 50 langile edo gehiago dauzkaten enpresek, aurreko neurriaz gain, berdintasun plan bat edukitzeko konpromisoa hartu beharko dute.	empleados sean personas con discapacidad. Las empresas de 50 o más personas empleadas, además de lo anterior, deberán comprometerse a cumplir con la obligación de contar con un plan de igualdad.
5. Enpresa lizitatzailearen berariazko erantzukizuneko aitorpena, bere enpresa-taldeari buruzkoa eta talde bereko sozietate guztiak biltzen dituena, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako moduan. Baldin eta 15.b) atalean proposamen bat ohi baino baxuagoa dela jotzeko parametroak ezartzen badira. Enpresa taldekoa ez bada, aitorpena horrela eginen da. Plegu honen **VI. ERANSKINEAN** dago eredua.	5. Declaración expresa responsable de la empresa licitadora relativa al grupo empresarial al que pertenece y comprensiva de todas las sociedades pertenecientes a un mismo grupo, en los términos establecidos en el artículo 42 del Código de Comercio. Se aportará siempre y cuando en el apartado 15.b) se establezcan parámetros para considerar que una proposición es anormalmente baja. En caso de no pertenecer a ningún grupo empresarial, la declaración se realizará en este sentido. Se incorpora modelo en el **ANEXO VI** al presente Pliego.
6. Hala badagokio, lizitatzaileen agiri eta datuen aitorpen konfidentziala. Enpresa lizitatzaileek adierazi beharko dute, hala bada, zein dokumentu administratibo eta tekniko eta datu aurkeztu diren konfidentzialtzat jotzeko. Horrez gain, inguruabar hori (gain inprimatua, bazterrean edo beste edozein modutan) adierazi beharko da hala adierazten den agirian. Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako agiri eta datuak isilpekotzat har daitezke, baldin eta hirugarren pertsona edo entitateei zabaltzea haien interes komertzial legitimoen aurkakoa bada edo enpresen arteko lehia leialari kalte egiten bazaio. Aitorpen hori aurkezten ez bada, ulertuko da agiri edo datu batek ere ez duela izaera hori. Plegu honen **VII. ERANSKINEAN** dago eredua.	6. En su caso, declaración de los documentos y datos de las licitadoras de carácter confidencial. Las empresas licitadoras tendrán que indicar, si es el caso, qué documentos administrativos y técnicos y datos presentados son, a su parecer, constitutivos de ser considerados confidenciales. Adicionalmente, esta circunstancia deberá reflejarse (sobreimpresa, al margen o de cualquier otra forma) en el propio documento señalado como tal. Los documentos y datos presentados por las empresas licitadoras pueden ser considerados de carácter confidencial cuando su divulgación a terceras personas o entidades pueda ser contraria a sus intereses comerciales legítimos o perjudicar la competencia leal entre empresas. De no aportarse esta declaración se presumirá que ningún documento o dato posee dicho carácter. Se incorpora modelo en el **ANEXO VII** del presente Pliego.
7- **VIII. ERANSKIN**A. Lizitatzaileek adieraziko dute zein hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei, bertakoei edo azpikontratatutako enpresei, esleipendun izanez gero. Kontuan hartu langileen soldata baldintzak beti bete behar direla, aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera.	7- **ANEXO VIII.** Las licitadoras indicarán el convenio colectivo que será de aplicación a los trabajadores, propios o de empresas subcontratadas, que realicen la actividad objeto del contrato, en el caso de resultar adjudicatarios. Téngase a la vista la obligación de cumplir en todo caso las condiciones salariales de los trabajadores conforme al convenio colectivo sectorial de aplicación.
OHARRA:	**NOTA:**

2000542G
2010-01

Anoeta pasealekua, 18 | Tel. 943481850 | udala_kirolak@donostia.eus | www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

KUPk frogagiri guztiak ala batzuk aurkezteko eskatu ahal izango die lizitatzaileei, 3. puntuan aipatutako adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari dagokionez arrazoizko zalantzak daudela uste duenean edo prozedura behar bezala aurrera eramateko beharrezkoa denean.	**El PMD podrá pedir a las licitadoras que presenten la totalidad o una parte de los documentos justificativos, cuando consideren que existen dudas razonables sobre la vigencia o fiabilidad de la declaración indicada en el punto 3 o cuando resulte necesario para el buen desarrollo del procedimiento.**
Nolanahi ere, enpresaburua Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde homologoan izena emanda baldin badago, edo Europar Batasuneko estatu bateko datu base nazional batean enpresaren espediente birtual bat, agiriak gordetzeko sistema elektroniko bat edo aurre-kalifikaziorako sistema bat sartuta baldin badago, eta aipaturiko organoak doan sar baldin badaitezke horietara, ez da beharrezkoa izango aipaturiko lekuetan inskribatutako datuen justifikazio agiririk edo bestelako frogagiririk aurkeztea.	**No obstante lo anterior, cuando el empresario esté inscrito en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público, en su homologo de la Comunidad Autónoma de País Vasco, o figure en una base de datos nacional de un Estado miembro de la Unión Europea, como un expediente virtual de la empresa, un sistema de almacenamiento electrónico de documentos o un sistema de precalificación, y estos sean accesibles de modo gratuito para los citados órganos, no estará obligado a presentar los documentos justificativos u otra prueba documental de los datos inscritos en los referidos lugares.**
Parte hartzeko eskaera aurkeztuz gero, lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen ditu Agiri honetako eta Baldintza Teknikoen Agiriko klausulak, salbuespenik edo erreserbarik gabe, eta baimena ematen die Kontratazio Mahaiari eta Organoari Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan bilduta dauden datuak kontsultatzeko. Agirietan ezarritakoari men egin ezean, eskaintza baztertuta geratuko da.	**La solicitud de participación presupone por parte de la empresa licitadora la aceptación incondicional de las cláusulas de este Pliego y del Pliego de Prescripciones Técnicas sin salvedad o reserva alguna, así como la autorización a la mesa y al órgano de contratación para consultar los datos recogidos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o en las listas oficiales de operadores económicos de un Estado miembro de la Unión Europea. El no sometimiento a los pliegos implica necesariamente el rechazo de la oferta.**
13.4 Hautagaiak aukeratzea	**13.4 Selección de candidatos**
Eskatzaileen nortasunaren eta kaudimenaren erantzukizunpeko adierazpena egiaztatu ostean, KUPeko organu kontratatzaileak 2. fasera igaroko direnak aukeratuko ditu, eta, aldi berean, beren proposamenak aurkezteko eskatuko die idatziz.	El órgano de contratación del PMD, una vez comprobada la declaración responsable sobre la personalidad y solvencia de los solicitantes, seleccionará a los que deban pasar a la Fase 2, a los que invitará, simultáneamente y por escrito, a presentar sus proposiciones.
14. PROPOSAMENAK ETA	**14. PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES**

2000542G
2010-01

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Donostia Kirola

Anoeta pasealekua, 18 | Tel. 943481850 | udala_kirolak@donostia.eus | www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA	Y DOCUMENTACIÓN
Fase honetan (2. fasea), lizitatzaile aukeratuek beren proposamenak aurkeztu beharko dituzte, bitarteko elektronikoak erabiliz. KUPko aipatu bulegoetan aurkeztu beharko dituzte, eta, Agiri honen 13.1 klausulan jasota dagoenez, **25 egun natural** izango dituzte horretarako, idatzizko jakinarazpena igortzen zaien egunetik zenbatzen hasita.	En esta fase (Fase 2), los licitadores seleccionados deberán presentar sus proposiciones utilizando medios electrónicos, tal y como se recoge en la Cláusula 13.1 del presente Pliego, y en el plazo de **25 días naturales** contados a partir de la fecha de envío de la invitación escrita.
Agiri honetan, Baldintza Teknikoen Agirian eta kontratuaren gainerako dokumentazioan xedatutakoari egokitu beharko zaizkio lizitatzaileen proposamenak, eta proposamen horiek aurkezteak esan nahiko du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen duela klausula horien guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.	Las proposiciones de los licitadores deberán ajustarse al presente Pliego, al Pliego de Prescripciones Técnicas y a la restante documentación contractual, y su presentación supone la aceptación incondicionada por el licitador del contenido de la totalidad de sus cláusulas, sin salvedad o reserva alguna.
Aukeratutako lizitatzaileek bi artxibo elektronikotan aurkeztu beharko dute dokumentazioa, aurrerago zehaztuko dena.	Las licitadoras invitadas deberán presentar dos archivos electrónicos, con la documentación que luego se indicará.
Artxibo elektroniko bakoitzak jarraian adieraziko diren dokumentuak izango ditu, baita bertan bildutako dokumentuen zerrenda zenbakitua ere.	Cada archivo electrónico constará de los documentos que se indican a continuación y contendrá una relación numerada de los documentos incluidos en el mismo.

2000542G
2010-01

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Donostia Kirola

Anoeta pasealekua, 18 | Tel. 943481850 | udala_kirolak@donostia.eus | www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

1. artxibo elektronikoa : "BALIO JUDIZIOEN BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"	**Archivo electrónico n.° 1 "DOCUMENTACIÓN RELATIVA A CRITERIOS CUYA CUANTIFICACIÓN DEPENDA DE UN JUICIO DE VALOR"**
Lizitatzaileek **Zerbitzuaren funtzionamendu eta kudeaketa plana** aurkeztu beharko dute, atal hauetan bereizia:	Las licitadoras deberán presentar un **Plan de funcionamiento y gestión del servicio** dividido en los siguientes apartados:
1. Kirol Proiektua	1. Proyecto deportivo
Kirol proiektuak alderdi hauek jasoko ditu:	Proyecto Deportivo comprensivo de los siguientes extremos:
-Proposatutako kudeaketa eredua. Eskainiko diren zerbitzuak, eta jardueretan parte hartzeko eta zerbitzuak erabiltzeko ereduak edo moduak.	-Modelo de gestión deportiva que se plantea. Servicios a ofertar y modelos o formas de acceso a las diferentes actividades y servicios.
-Kirol eskaintzaren definizioa. 2025/2026 ikasturterako eskaintza proposamena aurkeztu beharko da. Barne hartuko ditu kirol kanpainak, jarduerak eta zerbitzuak, baita osagarriak ere, eta lizitatzaileak eskaini eta antolatu nahi dituen kirol programak eta ekitaldiak.	-Definición de la oferta deportiva. Se deberá presentar la propuesta de oferta a realizar durante el curso 2025/2026. Incluirá las diferentes campañas, actividades, servicios deportivos y complementarios, así como programas y eventos deportivos que el licitador proponga ofrecer y organizar.
-Kirol jarduerak eta zerbitzuak garatzean erabiliko den metodologia: prestakuntza jarduerak, teknifikazioko jarduerak, jarduera bideratuak…	-Metodología a emplear en el desarrollo de las actividades y servicios deportivos: actividades formativas, tecnificación, actividades dirigidas...
2. Mantentze-plana	2. Plan de mantenimiento:
Mantentze lanen planak alderdi hauek jasoko ditu:	Plan de mantenimiento comprensivo de los siguientes extremos:
-Mantentze lanen kudeaketaren planteamendu orokorra. Zehaztu egin beharko da zer lan egingo dituzten langile propioek eta zer zerbitzu gauzatu beharko dituzten, ordea, hirugarrenek. Mantentze lan prebentiboen, prediktiboen eta zuzentzaileen protokoloak eta prozedurak, baita legez ezarritakoenak ere.	-Planteamiento general de la gestión del mantenimiento. Definición de trabajos a realizar con personal propio y servicios a realizar por terceros. Protocolos y procedimientos de mantenimiento preventivo, predictivo y correctivo, así como el establecido legalmente.
-Garbiketa eta desinfekzio, fumigazio eta arratoigabetze plana.	-Plan de limpieza y desinfección, desinsectación y desratización.
-Ingurumen kudeaketa. Planteatuko den ingurumen kudeaketa definitu beharko da: eraginkortasun energetikorako neurriak, hondakinen kudeaketaren definizioa eta ekonomia zirkularreko ekintzak.	-Gestión medioambiental. Se deberá definir la gestión medioambiental a plantear: medidas para la eficiencia energética, definición de la gestión de residuos y acciones de economía circular.
3. Komunikazio zein Marketineko Plana:	3. Plan de Comunicación y Marketing:

2000542G
2010-01

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Donostia Kirola
Anoeta pasealekua, 18 | Tel. 943481850 | udala_kirolak@donostia.eus | www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

Komunikazio zein Marketineko Planak alderdi hauek jasoko ditu:	Plan de Comunicación y Marketing comprensivo de los siguientes extremos:
-Erabiltzailearentzako arretaren definizioa: arreta, izapideak, iradokizun eta kexen kudeaketa.	-Definición de la atención al usuario: atención, trámites, gestión de sugerencias y quejas.
-Jendea erakartzeko aurreikusitako proiektu komertziala, ekintza, euskarri eta kanal nagusiak deskribatuta dituela.	-Proyecto de captación comercial previsto, con descripción de principales acciones, soportes y canales a emplear.
Gehigarri gisa, lizitatzaileek adierazi egin beharko dute eskaintzan ea aurreikusita duten KUPk datu pertsonalekin egin beharreko trataerari euskarria emango dioten zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzea, eta, hala izanez gero, lan horretaz arduratuko diren azpikontratisten izena edo enpresa profila (kaudimen profesional edo teknikoko baldintzak) ere adieraziko beharko dute.	Adicionalmente, los licitadores deberán indicar en su oferta si tienen previsto subcontratar los servidores que den soporte al tratamiento de datos personales que deban realizarse por cuenta de PMD o los servicios asociados a los mismos y el nombre o el perfil empresarial (definido por referencia a las condiciones de solvencia profesional o técnica) de los subcontratistas a los que se vaya a encomendar su realización.
Lizitatzaileak arreta berezia jarri beharko du 1.artxibo elektroniko honetan sartu beharreko dokumentazioa prestatzeko garaian, eta edukiari buruzko argibideei jarraitu beharko die. **Era berean, ezin izango da egin formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioaren inguruko alderdiak azaldu edo ezagutzera eman ditzakeen erreferentziarik.**	El licitador deberá observar especial cuidado a la hora de confeccionar la documentación a incluir en este archivo electrónico 1, ajustándose a las indicaciones dictadas respecto a contenido. **Igualmente, no se podrán hacer referencias que puedan orientar o dar a conocer aspectos sobre la documentación relativa a criterios evaluables mediante la utilización de fórmulas**.
Atzera bota eta prozeduratik kanpo utziko dira printzipio horiek betetzen ez dituzten eskaintzak.	**Las ofertas que contravengan estos principios serán desestimadas y excluidas del procedimiento.**
Lizitatzaileek emandako informazioa benetakoa dela egiaztatzeko baldin bada, KUPk beretzat gordeko du egoki irizten dituen egiaztatze lanak egiteko eskubidea edo beharrezkotzat jotzen duen beste edozein dokumentu eskatzeko eskubidea.	El PMD se reserva, asimismo, el derecho a realizar las labores de comprobación que considere oportunas o de exigir cuanta documentación adicional entienda necesaria con la finalidad de comprobar la veracidad de la información aportada por los licitadores.
2. artxibo elektronikoa "DOKUMENTAZIO EKONOMIKOA ETA BESTE BATZUK"	**Archivo electrónico nº 2. "DOCUMENTACIÓN ECONÓMICA Y OTROS"**
1. Ekonomia eta finantza plana.	**1. Plan económico-financiero.**
Lizitatzaileak Ekonomia eta finantza plana	Se deberá aportar un Plan económico-financiero

2000542G
2010-01

aurkeztu beharko du, kontratua formalizatzen denetik amaitzen denera artekoa, eta plan horrek bat etorri beharko du 1. Artxibo elektronikoaren edukiarekin: *"Zerbitzuaren funtzionamendu eta kudeaketa plana"*.	del licitador desde la formalización del contrato hasta la finalización del mismo acorde al "*Plan de funcionamiento y gestión del servicio*" que constituye el contenido del Archivo electrónico nº 1.
Berezkoak zaizkion beste alderdi batzuez gain, ekonomia eta finantza planak honako hauek barne hartuko ditu:	El Plan económico-financiero incluirá, entre los aspectos que le son propios, los siguientes:
-Proposatutako tarifak.	-Tarifas propuestas.
Zerbitzu edota jarduera nagusietarako tarifa edo prezioen proposamena (Baldintza Teknikoen Agiriaren 5 klausulan aurreikusitakoak). Nolanahi ere, ezin izanen dira klausula horretan ezarritakoak baino garestiagoak izan.	Propuesta de tarifas o precios para los diferentes servicios y/o actividades principales (previstas en la Cláusula 5 del Pliego de Prescripciones Técnicas). En todo caso, no podrán ser superiores a los previstos en dicha Cláusula.
-Eskari zenbatetsia.	-Demanda estimada.
-Proposatutako tarifekin lortuko liratekeen diru sarrerak (kontuan hartuta Baldintza Teknikoen Agiriko erreferentziazko tarifa maximoak).	-Ingresos estimados con las tarifas propuestas (teniendo a la vista las tarifas máximas de referencia del Pliego de Prescripciones Técnicas).
-Langileek, erreferentziazko hitzarmenak eta aurreikusitako baldintzak aplikatzeak ekarriko dituen gastuen kopuru zenbatetsia.	-Importe estimado de los gastos de personal, convenio de referencia y aplicación de las condiciones previstas.
-Mantentze lanen planaren arabera aurreikusitako gastu operatiboen zenbatekoa.	-Importe de gastos operativos estimados conforme al plan de mantenimiento.
Aurreikuspenean jasotako zifrekin batera behar beste azalpen eta ohar (memoria batean jasoak) emango dira, ongi uler daitezen.	Las cifras recogidas en la previsión deberán ser objeto de las explicaciones y los comentarios (contenidos en una memoria) que sean precisos para su correcta comprensión.
Dokumentu hori informaziozkoa izango da, baina KUPk egoki iruditzen zaizkion azalpen guztiak eskatu ahal izango ditu.	Dicho documento tendrá carácter informativo, si bien el PMD podrá pedir cuantas aclaraciones estime oportunas sobre el mismo.
2. Modu automatikoan ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa.	**2.Documentación relativa a criterios evaluables de forma automática**
Lizitatzaileek modu automatikoan ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, Agiri honekin batera **V. ERANSKIN** gisa doan ereduari jarraikiz.	Los licitadores deberán presentar la documentación relativa a criterios evaluables de forma automática ajustada al modelo que se adjunta al presente Pliego como **ANEXO V**.
KUPk 1. eta 2. artxibo elektronikoetan jasota dauden dokumentuen eta Baldintza Teknikoen Agirian eska daitezkeen dokumentuen edukia egiazkoa dela egiazta dezake esleipenaren aurretik zein ondoren, eta baita kontratuak	El PMD podrá comprobar, tanto antes como después de la adjudicación y en el curso del contrato, la veracidad del contenido de los documentos incluidos en los archivos electrónicos 1 y 2, así como de los que se puedan

irauten duen bitartean ere; eta enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak gezurrezkoak baldin badira, kontratua bertan behera gera daiteke, emakidadunak baldintzak bete ez dituelako.	exigir en el Pliego de Prescripciones Técnicas, entendiéndose que la falsedad de los datos y circunstancias presentados por la empresa puede ser causa de nulidad del contrato, por incumplimiento imputable a la empresa concesionaria.
Proposamenen batek ezarritako ereduaren funtsa aldatuko balu, edo ageriko akatsa egingo balu proposamenaren prezioan , edo enpresa lizitatzaileak onartuko balu bere proposamenak bideraezin egiten duten akatsak edo ahultasunak dituela, Kontratazio Mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoituaren bidez. Aitzitik, ereduko hitz batzuk aldatzea edo aipatu gabe uztea ez da proposamena baztertzeko adinako arrazoia izango, baldin eta horrek ez badu zentzua aldatzen.	Si alguna proposición variara sustancialmente el modelo establecido, o comportase error manifiesto en el porcentaje de la proposición, o existiese reconocimiento por parte de la empresa licitadora de que adolece de error o inconsistencia que la hagan inviable, será desechada por la Mesa de Contratación, en resolución motivada. Por el contrario, el cambio u omisión de algunas palabras del modelo, con tal que lo uno o la otra no altere su sentido, no será causa bastante para el rechazo de la proposición.
Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkez dezake. Bakarka aurkezten bada, lizitatzaileak ezin izango du elkarte baten barnean proposamenik aurkeztu, eta ezin izango du ere aldi baterako enpresa elkarte batean baino gehiagotan agertu. Lizitatzaile batek printzipio hori urratzen badu, atzera botako dira, automatikoki, haren proposamen guztiak.	Cada licitador no podrá presentar más de una proposición. Tampoco podrá suscribir ninguna proposición en unión temporal con otras empresas si lo ha hecho individualmente o figura en más de una unión temporal. La contravención de este principio dará lugar a la desestimación de todas las ofertas presentadas simultáneamente.
Proposamena enpresa talde batek aurkezten badu, talde hori osatzen duten enpresa guztiek izenpetu beharko dute, zuzenean edo ordezkari bidez.	Cuando la propuesta se formule por una agrupación de empresas, todas las que la componen habrán de firmar la propuesta directamente o mediante representante.
15. ESLEIPEN IRIZPIDEAK	**15. CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN**
Esleipen irizpide hauek erabiliko dira, dagokion haztapenaz adieraziak:	Los criterios de adjudicación, indicados con su ponderación correspondiente, serán los siguientes:
A-Balio judizio baten arabera kuantifikatzen diren irizpideak: gehienez 60 puntu.	**A-Criterios cuya cuantificación dependa de un juicio de valor: hasta un máximo de 60 puntos:**
1.Kirol Proiektua: gehienez 30 puntu	**1.Proyecto Deportivo: Hasta 30 puntos**
Bere edukia orri hauetako 14. atalean dago zehaztuta.	Su contenido esta detallado en el apartado 14 de este Pliego.
Puntuazioa emateko, alderdi hauek hartuko dira kontuan:	Para asignar la puntuación se tendrán en cuenta los siguientes aspectos:

2000542G
2010-01

Anoeta pasealekua, 18 | Tel. 943481850 | udala_kirolak@donostia.eus | www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

- Planteatutako kirol-proiektuaren definizioa, egokitasuna, koherentzia eta bideragarritasuna, bai eta KUPen helburuekiko lerrokatze-maila ere.	- la definición, la idoneidad, coherencia y viabilidad del proyecto deportivo planteado así como el grado de alineación con los objetivos de PMD.
- Eskaintzaren eta helburuko publikoaren zabaltasuna, biztanleria-sektore edo -talde guztiak sartzea, eta proposatutako jardueren eta ordutegien egokitasuna, hartzaile den publikoarekiko koherentzian. Horrez gain, udalaren kirol-eskaintza osatzen duen ekarpena eta maila ere baloratuko dira.	- la amplitud de la oferta y del público al que va dirigida, la inclusión de todos los sectores o grupos de población, la idoneidad de los horarios y actividades propuestas en coherencia con el público al que se dirige. Se valorará además la aportación y el grado en que complemente la oferta deportiva municipal.
- Egiten diren kirol-ekintzak ebaluatzeko eta neurtzeko sistemak eskaintzea baloratuko da.	- Se valorará que se oferten sistemas de evaluación y medición de las acciones deportivas que se realicen.
- Erabili beharreko metodologien koherentzia eta egokitasuna lortu nahi diren kirol-helburuekin, eta proiektuaren bideragarritasun teknikoa.	- La coherencia e idoneidad de las metodologías a emplear con los objetivos deportivos perseguidos, así como la viabilidad técnica del proyecto.
2. Mantentze- plana: gehienez 25 puntu	**2. Plan de mantenimiento: Hasta 25 puntos**
Bere edukia orri hauetako 14. atalean dago zehaztuta.	Su contenido está detallado en el apartado 14 de este Pliego.
Puntuazioa emateko, alderdi hauek hartuko dira kontuan:	Para asignar la puntuación se tendrán en cuenta los siguientes aspectos:
Mantentze-planaren zehaztasun- eta argitasun maila, eta haren egokitasuna, instalazioaren egoera hobea lortzeko eta zerbitzu-baldintza onenak eskaintzeko. Era berean, planteatutako proposamenak eta protokoloak baloratuko dira, zerbitzua ahalik eta baldintza onenetan bermatzeko, bai eta ezustekoen aurrean ahalik eta denbora laburrenean berrezartzeko protokoloak ere. Kudeaketaren, eraginkortasun energetikoa hobetzeko ekintzen, hondakinen kudeaketaren eta ekonomia zirkularraren ingurumen-inpaktua murriztea baloratuko da.	El grado de definición y claridad del plan de mantenimiento y su idoneidad con el objetivo de conseguir el mejor estado de la instalación y de ofertar las mejores condiciones de servicio. Asimismo se valorarán las propuestas planteadas y protocolos en aras a garantizar el servicio en las mejores condiciones, y de los protocolos de restablecimiento ante cualquier imprevisto en el menor tiempo posible. Se valorará la reducción del impacto ambiental de la gestión, acciones de mejora de la eficiencia energética, gestión de residuos y economía circular.
3. Komunikazio zein Marketingeko Plana: gehienez 5 puntu	**3.Plan de Comunicación y Marketing: Hasta 5 puntos**
Bere edukia orri hauetako 14. atalean dago zehaztuta.	Su contenido esta detallado en el apartado 14 de este Pliego.
Puntuazioa emateko, alderdi hauek hartuko dira kontuan:	Para asignar la puntuación se tendrán en cuenta los siguientes aspectos:
- Marketin Planean, herritarrek kirola egiteko duten komunikazio-maila, sustapena eta	- En el Plan de Marketing se valorará el grado de comunicación, promoción y capacidad de

2000542G
2010-01

erakartzeko gaitasuna baloratuko dira. Proposatutako ekintzak, horien aniztasuna eta ekintzak egingo diren espazioak hartuko dira kontuan, eta modu positiboan baloratuko dira espazioen aniztasuna, aurreikusitako inpaktu kopurua eta eremuen osotasun handiagoa.	captación para la práctica deportiva de la población. Se tendrán en cuenta las acciones propuestas, la variedad de las mismas, y de los espacios en los que se van a realizar las acciones, valorándose positivamente la pluralidad de espacios, el número previsible de impactos y la mayor globalidad de los ámbitos.
Eskaintzek gutxienez **30 puntu** lortu beharko dituzte prozeduran aurrera jarraitzeko.	Las ofertas deberán obtener una puntuación mínima de **30 puntos** para continuar en el procedimiento.
B-Formulen bidez ebaluatzen diren irizpideak: gehienez 40 puntu.	**B- Criterios evaluables mediante la utilización de fórmulas: hasta un máximo de 40 puntos**
1-KUPek emakidadunari ordaindu beharreko urteko ordainsariaren murrizketa: **Gehienez 25 puntu.**	1-Rebaja en la retribución anual a abonar por parte del PMD al concesionario: **Hasta 25 puntos**.
Proposamen ekonomikoa:	Proposición económica:
Enpresa lizitatzaileek KUPek ordaindu beharreko zenbatekoaren murrizketa bat eskaini beharko dute, agiri honen **V. ERANSKIN**eko eredua betez:	Las empresas licitadoras deberán ofertar, cumplimentando el modelo del **ANEXO V** del presente pliego, una reducción del importe a retribuir por parte del PMD:
Balioesteko, honako formula hau aplikatuko da:	Para su valoración se aplicará la siguiente fórmula:
$Vi = \frac{Bi}{Max\ (Bs\ ó\ Bmax)} \times Vmax$	
Non: **Vi:** Baloratu beharreko eskaintzari emango zaion puntuazioa **Bi:** Baloratzen den eskaintzak egindako portzentajezko baja. Kalkulu hori egiteko, sorta bakoitzaren kontzesioaren urte guztietarako egindako eskaintza osoa hartuko da kontuan. Kontuan hartu behar da, eranskinean ezartzen den bezala, lizitatzaileek ekarpen osoaren datua sartu behar dutela, eta ez murrizketa bakarrik. **Max (BS, Bmax)**: jarraian adierazitako bien arteko gehieneko balioa: - **Bs:** beherapena esanguratsuaren portzentajezko balioa: %5 - **Bmax:** Egindako eskaintzen artean, KUPek emakidadunari ordaindu beharreko ordainsarian gehienezko beherapenaren ehunekoa. Vmax: Ordainsariaren irizpideari esleitutako gehieneko puntuazioa (25 puntu).	Donde: **Vi:** Puntuación que se atribuirá a la oferta a valorar. **Bi:** baja porcentual realizada por la oferta que se valora. Para este cálculo se tendrá en cuenta la oferta total realizada para el total de los años de la concesión para cada lote. Teniendo en cuenta que tal y como se establece en el Anexo los licitadores deberán de incluir el dato de la aportación total y no simplemente la reducción. **Max (Bs, Bmax):** Valor máximo de entre los dos indicados a continuación: - **Bs:** Valor porcentual de la rebaja significativa: 5%. - **Bmax:** Valor porcentual de la rebaja máxima en la retribución a abonar por parte del PMD al concesionario de entre las ofertas realizadas. **Vmax:** Puntuación máxima atribuida al criterio de retribución (25 puntos).

2000542G
2010-01

Neurriz kanpokoa edo anormala izan daitekeen proposamen bat identifikatzen bada, hura aurkeztu duen lizitatzaileari entzungo zaio, eskaintzaren balorazioa justifikatu eta horren baldintzak zehaztu ditzan. Kontsiderazio horrek eskaintza ekonomikoari baino ez dio eragiten.	Cuando se identifique una proposición que pueda ser considerada desproporcionada o anormal, deberá darse audiencia al/a los licitador/es que la haya/n presentado para que justifique/n la valoración de la oferta y precise/n las condiciones de la misma. Esta consideración afecta solamente a la oferta económica.
Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituen eskaintza bat aintzat hartzeko parametroak Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen 1098/2001 Errege Dekretuaren 85. artikuluan araututakoak dira. Hau da:	Los parámetros para considerar una oferta con valores anormales o desproporcionados son los regulados en el art.85 del RD 1098/2001 por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas. Es decir:
"Hasiera batean, jarraian aipatzen diren egoeretan aurkitzen direnak proportziorik gabeak edo edo eta auserkeriduntzat hartuko dira:	*"Se considerarán, en principio, desproporcionadas o temerarias las ofertas que se encuentren en los siguientes supuestos:*
1. Lizitatzaile bakarra egonda, bere eskaintza lizitaziorako oinarrizko aurrekontua baino txikiagoa izatea: 25 unitate portzentualetik beherakoa, hain zuzen.	*1. Cuando, concurriendo un solo licitador, sea inferior al presupuesto base de licitación en más de 25 unidades porcentuales.*
2. Bi lizitatzaile egonda, beste eskaintza baino 20 unitate portzentual txikiagoa dena.	*2. Cuando concurran dos licitadores, la que sea inferior en más de 20 unidades porcentuales a la otra oferta.*
3. Hiru lizitatzaile egonda, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino txikiagoak izatea,10 unitate portzentualetik beherakoak, hain zuzen. Hala ere, neurri hori kalkulatzeko eskaintzarik handiena ez da kontuan hartuko, baldin eta neurri hori baino handiagoa bada, 10 unitate portzentualetik gorakoa, hain zuzen. Nolanahi ere, 25 unitate portzentual baino baxuagoa den eskaintza neurriz kanpokotzat joko da.	*3. Cuando concurran tres licitadores, las que sean inferiores en más de 10 unidades porcentuales a la media aritmética de las ofertas presentadas. No obstante, se excluirá para el cómputo de dicha media la oferta de cuantía más elevada cuando sea superior en más de 10 unidades porcentuales a dicha media. En cualquier caso, se considerará desproporcionada la baja superior a 25 unidades porcentuales.*
